

MUSIKAREN HISTORIA



- **MUSIKA**, gizakia bezala, antzinean sortua da. Garai hartarako instrumentuak eta guzti zeuden!



- VI. mendetik, kantu bidez otoiz eginez monjeek **MUSIKA** zabaldu zuten.



- Aldi berean ia, **JUGLARIEK** eta **TROBALARIEK** herriz herri eramaten zuten musika.
- **KANTATZEN** zen **MUSIKA** bera **INSTRUMENTUEN** laguntzarekin jotzen hasi ziren.




BARROKOA

- 1600 eta 1750 bitartean iraun zuen aldia.
- Bere esanahia **GEHIEGITASUNA** da, xehetasunez josita.

<u>Ezaugarri orokorrak</u>	<u>Musikaren ezaugarriak</u>
- BARROKOA DENETARAKO GEHIZALEA da. - Artistak honako hauen bila dabilta: <ul style="list-style-type: none"> • Argia • Mugimendua • Errealismoa • Apaindura 	- Instrumentu bidezko musikaren garapena: ORKESTRAK eratzen dira. - Dramatikotasunari garrantzi handia: Opera eta ORATORIOA - Estilo fugatua - Melodia apainketa

<u>Musika erak</u>	<u>Garaiko instrumentuak</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Fuga • Concerto grosso-a • Suite klasikoa • Opera • Oratorioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Biolina } espresibitatea } apainketarako gaitua • Organoa: handitasuna • Klabezina: tinbreen ugaritasuna



Antonio VIVALDI. 1680-1743

- Italiako konpositore eta biolin jole “IL PRETE ROSSO” ezizenez ezaguna, hilea gorrixka zuelako alegia.
- KONTZERTU formaren eta biolineko eskola modernoaren sortzaitetako bat da.


ENTZUN DITZAKEZUN OBRAK

- Lau urtaroak
- Estro armonikoa: *Concerto grossoa La minorrean.*
- Ohiz kanpoko instrumentuetarako *Concerto grossoak.*



Johann Sebastian BACH. Alemania 1685-1750

- Historian zehar izan den musikaririk handienetakoa da.
- Bere familiartekoak antzinetik izan ziren musikariak.
- Bi aldiz ezkondu zen eta seme-alaba asko izan zituen (20), horietako batzuk musikariak baita ere. Beraiei dedikatu zien “ANA MAGDALENAREN BILDUMA” bigarren emaztearen izena hori baitzen.
- Itsu hil zen.
- Bere bizitzan zehar konpositore bezala baino organo jole bezala izan zen ezaguna.
- Bere musikaren ezaugarriak hauek dira: izpirituaren jasoera eta maisu baten teknika gorena.
- BACHen obra baztertuta egon zen denbora luzean, Erromantizismoko musikari batek, hau da, MENDELSSOHNek, “PASIOA S. MATEOREN IKUSPEGITIK” bere obra bikaina jotzean berpiztu zuen artean.
- JUAN SEBASTIANek maisu handien apaltasuna eta umiltasuna zuen. Berak zion: “EDOZEINEK NIK ADINA LAN EGINGO BALU, EGITEN DUDANA EGIN AHAL IZANGO LUKE”
- BACHek musika egin zuen: organorako, instrumentala eta korala.



ZENBAIT GARRANTZIZKO OBRA

- *Pasioa S. Juan eta S. Mateoren ikuspegitik*
- *Brandeburgo-ko 6 Kontzertuak.*
- *Si minorreko Meza.*
- *Fugaren artea.*
- *Suite klasikoak.*



Georg Frederich HAENDEL. Alemania 1685 – London 1759

- Bach jaio zen urte beran jaioa, bera bezala itsu hil zen baita ere.
- Bidaiak egiteko zaletasun handia zuen. Londonera joan eta hil arte geratu zen bertan. Ingelesek bertako bailitzan hartu dute. WESTMINSTERen hilobiratu zuten, SHAKESPEAREn alboan.
- Mundukoa eta jostagarria da bere musika eta dirdira, teatrotasuna eta erritmo aldetik zehaztasuna dira bere ezaugarri. Baliabide ximpleen bidez emaitza harrigarriak lortzen ditu.


ZENBAIT GARRANTZIKO OBRA

- *Orkestrarako musika: Concerto grossoak, Uretako musika (Suite-a) Erregearen suzko festetarako musika (Suite-a)*
- *Oratorioak: Mesias (hiru astetan burutua), Israel Egipton, Judas Macabeo.*
- *Operak: Jerjes, Orlando, Julio Cesar.*



KLASIZISMOA

- XVIII. mendeko aldia.
- IDEIA BATEN BEREZKO ADIERAZPIDEA da.
- BARROKOaren kontra erreakzioz sortua.
- PIANOA erabiltzen hasten dira, solista moduan eta ORKESTRAREKIN.



<u>Ezaugarri orokorrak</u>	<u>Musikaren ezaugarriak</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Arrazoia sentiberatasunaren gainetik • Inspirazioak inteligentzian du oinarri • KLASIZISMOA da: <ul style="list-style-type: none"> - oreka - zehaztasuna - proportzioa - apaindura eza 	<ul style="list-style-type: none"> • KLASIZISMOKO musika instrumentala eta espresiboa da batez ere duen tinbreen ugaritasunagatik. • Orkestrari instrumentuak gehitzen zaizkio eta berauek taldetan banatzen dituzte: haria, haizea eta perkusioa. • Konpositoreen kezka FORMA da, arau finkoak ezarri artean. • Fraseak argiak dira eta kuadratura ezin hobea. • Melodiak ximpleak eta dotoreak dira. Modu maiorra asko erabiltzen da.

Musika erak

- Sonata
- Sinfonia
- Kuarteto klasikoa
- Kontzertua



Franz Josef HAYDN. Austria 1732 – 1809

- Familia xehekoa, herriko maisuak eman zizkion aurreneko eskolak.
- Vienako Katedraleko haur kantaria.
- Gizon handientzat aritu izan zen gerora lanean, horien artean ESTERHAZY Printzearentzat.
- Vienako herritarrek “PAPA HAYDN” ezizen kuttunaz ezagutzen dute, izatez alaia eta apala zelako. MOZARTEk ere hala deitzen zion askotan, beti laguntzeko prest zegoen laguna baitzuen hura.
- Bere musika alaia eta laua da, grazia eta humorearekin egina.
- Bere melodiak sinpleak eta errazak dira, frase motz eta argiz eginak.
- “Bariaziodun Tema” sarritan erabiltzen du.
- SINFONIAREN eta KUARTETO KLASIKOAREN sortzailetzat hartu ohi dute.

ZENBAIT OBRA

- *104 SINFONIA: Erlojuarena, Sorpresa, Jostailua, Tinbal kolpea...*
- *100 HARIZKO JUARTETOA*
- *ORATORIOAK: Kreazioa, Urtaroak...*
- *KONTZERTUAK*
- *SONATAK*




Wolfgang Amadeus MOZART. Austria 1756 – 1791

- Musikarako etorri handiko haurra.
- 4 urte zituela aitak, Leopoldo izenekoak, ematen zizkion eskolak.
- 5 urte zituela aurreneko konposizioak idatzi zituen eta 6 urterekin bere ahizpa NANNERLEkin kontzertuak eskaintzen zituen.
- 10 urte zituela musikazko ipuin bat idatzi zuen: BASTIAN eta BASTIANA. Inprobisatzeko etorri handia zuen ordurako.
- Umetan ospe handia lortu zuen arren, nagusi egin zenean zurrumurruek eta inbidiak kalte egin zioten.
- Berak bazekien musikarako jaioa zela, horregatik ez zuen onartzen artea nobleen nahikeriaren esku uztea.
- Berak egindako musika guztiak ezaugarriak diru: perfektzioa, garbitasuna, alaitasuna, argitasuna, espontaneitatea.
- Genero guztiak lantzen ditu, musika erlijiosotik hasita opera arte.
- 700 obra baino gehiago dauka.
- Pobre bizi izan zen eta, hil zenean, bakardadean ia, Vienako kanposantura eraman eta bertan besterik ez duenarentzat dauden hilobi batean lurperatu zuten. 35 urte zituen orduan.


OBRA GARRANTZITSUAK

- *48 SINFONIA, horien artean: 40 zenbakiduna, eta Jupiter.*
- *Koroatze Meza.*
- *Kontzertuak.*
- *Minuetto-ak*
- *Sonatak.*
- *Operak: Flauta magikoa, Don Juan, Figaroren ezkontzak...*



Ludwig van BEETHOVEN. Alemania 1770 . Viena 1827.

- BEETHOVEN ez zen etorri handiko umea. Hala ere, jo eta ke ikastera behartzen zuen aitak bigarren MOZART bat bihurtu nahian.
- Garai batean HAYDN izan zuen maisu eta MOZARTEk, halako batean Vienan jotzen entzun zuen behin eta esan: “NOIZBAIT MUNDU OSOAK HITZ EGINGO DU MUTIKO HONETAZ”.
- Musikari batentzat gaixotasunik kaltegarrienetakoa jasan zuen: gortasuna.
- Borroka eta sufrimendu hori bere obretan nabarmentzen da sarritan.
- Artista librea izan zen BEETHOVEN. Nobleen menpe ez egotea lortu zuen eta berak egindako obrak saltzetik bizi izan zen.
- BEETHOVEN MUSIKA KLASIZISMOA ETA ERROMANTIZISMOA BAT EGITEN DITUEN ZUBIA DA.
- Ez du forma berriak sortzen, baizik eta daudenak zabaldu eta landu egiten ditu.
- 3. denboratan Scherzo-aren ordean Minuet-a erabiltzen du.
- BEETHOVENek “musika errege” bihurtzen du pianoa, bere teknika eta espresatzeko duen gaitasuna areagotuz.
- Orkestran instrumentu berriak sartzen ditu: kontrafagota, tronboiak, flautina eta perkusioa, azken hau aberastuz.
- BEETHOVENek gailurrera eraman zuen SINFONISMOA.



OBRAK


- 9 Sinfonia: Heroikoa, 3.a, Pastorala, 6.a, Alaitasunaren garaipena 9.a.
- 5 Kontzertu, Piano eta orkestrarako.
- Re M.eko Kontzertua, Biolin eta orkestrarako.
- 32 Sonata Pianorako: Aurora, Patetikoa, Apasionata, Ilargiaren argia...
- 10 Sonata Biolin eta Pianorako: Udaberria...
- 16 Kuarteto.
- 1 Septimino.
- Fidelio. Opera.
- Solemnis Meza.

Erromantizismokoa... Klasizismokoa... ???

ERROMANTIZISMOA

- XIX mendearen aurreneko erdia hartzen du.
- SENTIMENDU BATEN ADIERAZPIDEA DA.
- PIANOA. Duen espresibitateagatik eta soinuaren aberastasunagatik izango da garaiko instrumentua.

<u>Ezaugarri orokorrak</u>	<u>Musikaren ezaugarriak</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Sentimendua arrazoiaren gainetik • Errealitateetik ihes egitea. • Nortasunaren gorespena eta beraz, obren izaera intimoa. • Askatasunaren antsia. • Naturarekiko maitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Artistek noten bidez azaltzen dute beren burua. • Askatasuna konposatzerakoan. • Autoreek “Forma Txikiak” nahiago dituzte: Inprontus, balada, polonesa.. • Beren inspirazioa tristeza eta goibela da. Horregatik erabiltzen dute modu minorra horrenbeste. • Kontrajartze dinamikoak. • Instrumentuen dirdira.



Franz SCHUBERT. Austria 1797 – Viena 1828

- ERROMANTIZISMO MUSIKALAREN sortzailetakoa bat da ere.
- Pianorako obrak egiten espezializatua.
- LIEDAREN maisu handia izan zen. “LIEDAREN ERREGE” deitzen zioten. 600 baino gehiago konposatu zituen. Bihotz apal batek senti ditzakeen emozio guztiak adierazi zituen.
- BEETHOVEN gorenaren zuten eta bere sinfonismoaren jarraitzaile sutsua izan zen.
- Vienan hil zen eta berak eskatuta BEETHOVENEN alboan hilobiratu zuten, hori izan baitzen bere nahia.



ZENBAIT OBRA


- *LIEDER: Bidaia, Errotari Ederra, Neguko bidaia, Margarita Goruan...*
- *9 Sinfonia. Ezagunena Amaitu gabea da.*
- *Pianorako Kintetoak. Horien artean “Amuarraina”.*
- *Rosamunda. Antzerkia eta musika batera.*
- *Inprontus-ak*
- *Une musikalak.*

Felix MENDELSSOHN. Alemania 1809 – 1847

- Banku jabe judutarren ondorengoa zen, musikariaren historian kasu berezia.
- Familia aberatsekoa zen. Ez zitzaion inoiz ezer falta eta diru aldetik ez zuen larrialdirik pasa.
- Bere musikan antzeman daiteke hori, estilo jantziko musika dotorea baita.
- Berlin, Paris eta Erromako artista handien eskutik artearen munduan hezitakoa.
- 20 urte zituela, BACHEN PASIOA MATEOREN IKUSPEGITIK obrarekin orkestra bat zuzendu zuen eta horrek erabateko eragina izan zuen musikari handi haren obra ezagutzera emateko, ia baztertuta egon baitzen ordurarte.
- Ingalaterra eta Italiara joan zen eta bertan hainbat TEMA bildu zituen, bere obra ezagunen artean bi hauen inspirazio iturri: Sinfonia Eskoziarra eta Sinfonia Italiarra.

BESTE ZENBAIT OBRA

- *Hitzik gabeko Erromantzak (berak sortutako forma)*
- *Udako gau bateko ametsak (17 urte zituela konposatutako obra horretan “Ezteietako martxa”ezaguna da oso)*



Robert SCHUMANN. Alemania 1810 – 1856

- Erromantiko honek bi jokabide desberdin zituen, “MUSIKAKO KAZETA BERRIA”n izenpetzeko erabili zituen honako bi izenei dagozkienak: “EUSEBIUS”: Ameslaria, eta “FLORESTAN”: Borrokalari sutua.
- 30 urte bete arte pianorako musika besterik ez zuen konposatu. Horiek dira bere obrarik onenak.
- SCHUBERTekin batera, LIEDaren sortzaitetako bat da.
- Burua galdu eta eroetxe batetan sartu zuten. Bertatik Rhin-era bota zuen bere burua. Ez zen orduan hil, ordea, bi urte gehiago bizi ezan zen.
- SCHUMANNen musika poesiaz betea dago, eta bere bizitzan bezalaxe, tristezia, ametsak eta grina dira nabarmen.

ZENBAIT GARRANTZIZKO OBRA

- *145 Lieder: Maitasuna eta bizitza, Poetaren amodioak...*
- *4 Sinfonia, horien artean Renana.*
- *Estudio Sinfonikoak.*
- *Haurrentzako piezak.*
- *Ihauteria.*
- *Gazteriaren bilduma.*
- *Kamarako musika.*



Frederic CHOPIN. Polonia 1810 – Paris 1849

- Bertutedun umea, pianoa jotzeko eta konposatzeko etorri handia zuen.
- 20 urte zituela, iraultzak behartuta, bere jaioterria utzi eta Parisera joan zen bizitzera. Bertan, jendearen idoloa bilakatu zen.
- Piano jole bikaina. Bere obra gehienak instrumentu horretarako egin zituen.
- Poesia, grina eta herrimina nabarmentzen dira bere musikan, jaioterriarekiko dituen sentimenduen adierazgarri. Pianoaren bitartez erakusten ditu bere bizitzako sentimendu guztiak.
- Bere obran aurki ditzakegu musikari honen bi ideia iraunkor: *Maitasunaren nostalgia* eta *Jaioterriaren gorespena*.

ZENBAIT OBRA

• <i>Vals-ak.</i>	• <i>Estudioak.</i>
• <i>Polonesak.</i>	• <i>Preludioak, gehienak Mallorcan konposatuak.</i>
• <i>Nokturnoak.</i>	• <i>Scherzoak</i>
• <i>Baladak.</i>	• <i>2 Kontzertu piano eta orkestrarako</i>
• <i>Mazurkak.</i>	



Franz LISZT. Hungaria 1811 – Alemania 1886

- Txikitatik erakutsi zuen musikarako etorria. Aita Vienara joan ze semeak musika landu ahal izateko.
- Gerora, Parisen, Frantziako gizartearen idolo bihurtu zen.
- Musikari guztien lagun eta defendatzaile, lagundu eta bultzatu egin zituen aurrera jarrai zezaten.
- Erroman, frantziskotarrekin bizi izan zen bolada batean. Hori dela eta erlijio kutsuko obra asko dauzka.
- LISZT piano jole trebea zen.
- POEMA SINFONIKOAREN sortzaitetako bat dela esaten ohi da.


ZENBAIT OBRA

- *Rapsodia hungariarrak (dituen konposizio ezagunenak)*
- *Amodiozko ametsak*
- *2 Kondaira: S. Francisco e Asís eta S. Francisco de Paula uraren gainean.*



Johann BRAHMS. Alemania 1833 – Viena 1897

- Erromantizismoaren ondorengo aldikoa da.
- Kontrabaxua jotzen zuen aitak eta berak sartu zuen musikaren munduan.
- 20 urte bete zituen arte, diru aldetik larri ibili zen. Dantzalekutan eta tabernatan jo behar izan zuen . Garai hartan SCHUMANN ezagutu eta honek “MUSIKAKO KAZETA BERRIA”n gorespenez ezagutzera eman zuen. Elkarren oso lagun egin ziren biak, Clara emaztea tartea zela.
- Ohorez eta goraipamenez beterik hil zen, eta Vienako musikariaren alboan hilobiratu zuten.
- Forma klasikoak betetzen dituen erromantikoa da BRAHMS.
- Sinfonia egile bikaina.
- Bere musika paregabea da, erritmoen aberastasun eta indarragatik.
- Kamarako musikan eta Lieder-etan konposatzaile bikaina dela antzeman daiteke baita ere.



ZENBAIT OBRA

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>Dantza Hungariarrak.</i>• <i>4 Sinfonia.</i>• <i>2 Kontzertu Piano eta orkestrarako.</i>• <i>1 Kontzertu Biolin eta orkestrarako.</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Trioak, Kuartetaok, Kintetaok.</i>• <i>Baladak.</i>• <i>150 Lieder: “Sehaska kanta”...</i> |
|---|---|

Richard WAGNER. Alemania 1813 – Venecia 1883

- Hautzarotik sentitu zuen arterako erakertasuna, antzerkirako eta filosofiarako aitaren eta aitonaren zaletasunak bultzatuta.
- Greziako tragedien zale porrokatua zen eta literaturan SHAKESPEARE zuen eredutzat.
- WAGNER musikari eta poetak berorrek idazten zuen obren testua.
- OBERTURAz gain, bere operek PRELUDIO bat dute akto bakoitzaren aurretik.
- “Leitmotiv”a sartu zuen bere obretan. “Leitmotiv”a pertsonaia bat edo egoera bat karakterizatzen duen gaia da, obrari batasuna emango diona.
- Metalezko haize-instrumentuak asko erabiltzen ditu.
- Bere maisu obrak konposatzen zituen bitartean bidaiak egiten zituen etengabe.
- Hil aurretik antzoki bat eraiki zuen BAYREUTHen, berak sortutako dramak errepresentatzeko asmoz. Gaur egun, urtero antolatzen dira jaialdiak bertan.



ZENBAIT OBRA

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>Untzi fantasma.</i>• <i>Tannhäuser.</i>• <i>Tristan eta Isolda.</i>• <i>Maisu Kantariak.</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Nibelungoren eraztuna: Rhin-eko urrea.</i>
<i>Walkiria</i>
<i>Sigfrido</i>
<i>Jainkoen ilunabarra</i> |
|--|--|

Hector BERLIOZ. Frantzia 1803 – 1869

- Frantzian, ERROMANTIZISMOAren aitzindaria da.
- Bere zaletasun handiak bultzatuta hasi zen musika lantzen, familiak nahi ez zuen arren.
- Hutsegite, borroka eta etsimenduz betea dago bere bizitza.
- Fantasia, gehizaletasuna, sinestezinezko guztia BERLIOZen bizitzatik bere musikara pasa zen.
- Orkestra Sinfonikoaren egiazko maisu eta sortzailea da, ikaragarritzko aberastasuna eta kolorea emango diona.
- Bere SINFONIA FANTASTIKOAren sortuko da “Programa”ko musika.
- Literaturgile eta musikako kritikaria izan zen.



ZENBAIT OBRA

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>Sinfonia Fantastikoa</i>• <i>Erromako Ihauteria, obertura</i>• <i>Kristoren haurtzaroa</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Faustoren kondenamendua (oratorioak)</i>• <i>Requiem</i>• <i>Benvenuto Cellini. Opera</i> |
|---|--|

Johann STRAUSS. Austria 1825 – 1899

- Izen bereko konposatzailearen seme, “VALSaren ERREGE” izenez ezagutzen zaio.
- Melodia eder eta sinplez osaturiko musika idatzi zuen eta aitak eta berak egindako konposizioak jotzeko orkestra bat eratu zuen.
- OPERETA VIENARRAren maisua izan zen ere.

ZENBAIT OBRA

- *479 Vals: Danubio urdina, Hegoaldeko arrosak, Vienako oihanetako ipuinak...*
- *Operetak: Saguzarra, Baroi ijitoa, Odol vienarra.*
- *Polkak, paregabeko graziaz beteak.*



NAZIONALISMOAK (ESKOLA ABERTZALEAK)

- ABERTZALETASUNA ERROMANTIZISMOAREN ondorioz sortua da.
- XIX. menderarte, Italia, Frantzia eta Alemaniak musikarako zein bide hartu erakutsi zieten konposatzaile guztiei.
- ERROMANTIZISMOAren garrantziko gertakari bat sortu zen: HERRI BAKOITZAK BERE ESKOLA ERATU ZUEN.
- Hala, XIX mendearen erdialdera honako eskola hauek sortu ziren:
 - ✓ Errusiako eskola.
 - ✓ Txekoslovakiako eskola.
 - ✓ Norbegiako eskola, etab.

EZAUGARRIAK

- Aberriko kanta eta dantzetatik hartzen dituzte gaiak, eta beste herrietako folkloreak aberastasunetik baita ere.
- MUSIKAKO FORMA guztiak erabiltzen dituzte, berriak eta antzinekoak, baina aldi hartako berezko askatasunarekin. Batez ere:
 - ✓ SUITE MODERNOAK.
 - ✓ POEMA SINFONIKOAK.
- Mugimendu honen aitzindarietako bat LISZT izan zen, Rapsodia Hungariarekin.



ERRUSIAKO ABERTZALETASUNA BOSTEKOEN TALDEA

- ERRUSIAKO Mugimendu Abertzalearen aitzindari izan zen:

Michael GLINKA. Errusia 1804 – 1857

- Herrian, erlijioan eta kanta eslaviarretan oinarritu zen.
- Bere obra nagusia “Zar-arengatik bizitza” izeneko opera da.

BOSTEKOEN TALDEA

- Horietatik inor ez da MUSIKARIA, zentzurik zabalenean behintzat.
- Aberriarekiko maitasunak eta Musikarekiko maitasunak bultzatu zituzten taldea sortzera.
 - ✓ CESAR CUI
 - ✓ BALAKIREV
 - ✓ BORODIN
 - ✓ RIMSKY-KORSAKOV
 - ✓ MOUSSORGSKY

CESAR CUI. 1853 – 1919

- Ingeniaria. TALDEA ERATU eta DEFENDATU zuena.
- “ERRUSIAKO MUSIKA” izeneko bere liburuan, taldearen helburuak azaltzen dizkigu.

ZENBAIT OBRA

- *Kaukasoko espetxeratu. Opera.*
- *Errusiar estiloko 200 kanta.*

BALAKIREV. 1837 – 1910

- Matematikari eta zientzilaria. TALDEAREN teorikoa izan zen.
- GLINKAREN aholkuz ekin zion musikari.
- Bere lankideen buru izan zen eta berak hezi zituen musikan.

ZENBAIT OBRA

- *Tamara. Poema Sinfonikoa.*
- *Islamey. Pianorako fantasia.*

Alexander BORODIN. 1834 – 1910

- Medikua. Printze kaukasiar baten seme. Astia zuenean iharduten zuen musikan lanean.
- Errusiako herrialdeetako kanta herrikoiak erabili zituen, Asiako Ekialdekoak batez ere.

BERE OBRARIK EZAGUNENAK


- *Asia Erdiko Estepetan. Poema Sinfonikoa.*
- *Igor Printzea. Opera.* RIMSKY-KORSAKOVek burutu eta estreinatu zuen.

Modest MOUSSORGSKY. 1839 – 1881

- Ejertzitoko ofiziala. Musikan iharduteko utzi egin zuen militar bizitza.
- Musika konposatzeko elementuak bere kasa ikasi zituen.
- Gizakiaren bizitza eta sufrimenduak begiratu eta aditzen zituen.
- Bere musikak herriaren arima isladatzea nahi zuen. Bera zen TALDEAN garrantzitsua.

ZENBAIT OBRA

- *Boris Goudonov. Opera.*
- *Erakusketa bateko kuadroak. Suite Modernoa.*
- *Mendi soilean igarotako gau bat. Poema Sinfonikoa.*



Nikolai RIMSKY-KORSAKOV. 1844 – 1906



- Marineltzako ofiziala.
- Teknika aldetik, TALDEAn ondoen prestatutakoa bera da.
- Musikaren artea sakonean ikasten ihardun zuen.
- Bere obrak koloretsuak eta dirdira handikoak dira.

ZENBAIT OBRA

- *Sherezade. Suite Modernoa.*
- *Errusiako Bazko egun handia. Poema Sinfonikoa.*
- *Urrezko oilarra. Fantasia.*
- *Saltan zar-a. Opera honi dagokio “eulibeltzaren hegaldia”.*
- BOSTEKOEN TALDEArekin batera, badira hainbat musikari Errusian. Horien artean, TCHAIKOVSKY aipatzeak merezi du.

Peter TCHAIKOVSKY. 1840 – 1893

- BOSTEKOEN TALDEKO dotrina abertzaleari ez dio jarraituko. Baina, zalantzarik gabe, bere obra ugarik ERRUSIAR kutsu handia dute.
- Konposatzaile ospetsuenetakoa da, bere melodia batzuek duten dirdira eta sentiberatasunagatik.

ZENBAIT OBRA

- *6 Sinfonia: Patetikoa...*
- *Balletak:*
 - ✓ *Zisneen lakua.*
 - ✓ *Loti Ederra.*
 - ✓ *Intxaur-jalea. Baita ere, Suite Moderno egina.*
- *3 Kontzertu piano eta orkestrarako.*
- *1 Kontzertu biolin eta orkestrarako.*
- *Kapritxo italiarra.*
- *Romeo eta Julieta. Obertura.*



TXEKOSLOBAKIAKO ESKOLA

- TXEKOSLOBAKIAKO ESKOLA, ERRUSIARRETIK gertuena da, bai kronologia aldetik eta bai obren balio eta garrantziagatik.
- Eskola horren ordezkari nagusiak:
 - ✓ SMETANA
 - ✓ DVORAK

Frederic SMETANA. Praga 1824 – 1884



- Musika TXEKIAR modernoaren aitzindari.
- 50 urte zituela gor geratu zen eta horren eraginez ero bihurtu zen.
- Bere musikaren ezaugarriak dira handitasuna eta deskribapena.
- Poema Sinfoniko forma erabiltzen du batez ere.

ZENBAIT OBRA

- *Emaztegai saldua. Opera.*
 - *Nire Aberria. 6 Poema Sinfonikok osatua. Horien artean MOLDAVA.*
 - *Nire bizitzaz. Kuartetoa Mi-n.*
 - *Dantza bohemoiak.*
-

Anton DVORAK. Txekoslovakia. 1841 – 1904

- Bere herriko konposatzaile garrantzitsuen eta sakonena bera da.
- TXEKIAR ABERTZALETASUNAK berari esker lortu zuen heldutasuna.
- Batez ere, sinfonikoa da.
- Hiru urtez, New York-eko Kontserbatorioko Zuzendari izan zen.

ZENBAIT OBRA

- 9 Sinfonia. Ezagunena “Mundu Berria”rena da, “beltz espiritual”en temaz osatua.
- Dantza Eslaviarrak.
- Ihauteria. Obertura.
- Humorezkoak. Biolin eta pianorako.



NORBEGIAKO ESKOLA

- Ezagunena eta aipatuena GRIEG da.

Edward GRIEG. 1843 –1907



- Musika egiterakoan folklore norbegiarraz baliatuz paregabe poesia erantzen dio guztiari.
- Erromara egin zuen bidaiak eta LISZTEkin zituen harremanak lagunduko diote pertsona heldua izatera, atzera bere herrira itzultzean ABERTZALETASUN NORBEGIARRA sortzeko gai eta prest.

ZENBAIT OBRA

- Peer Gynt. Suite Modernoa.
- 3 Sonata biolin eta pianorako.
- 1 Kontzertu piano eta orkestrarako.
- Dantza Norbegiarrak.

BESTE ZENBAIT ABERRI

FINLANDIAKO ABERTZALETASUNA

- Musikaren historia guztia bilduko duena SIBELIUS da.

Joan SIBELIUS. 1865 – 1957

- Zuzenbidea ikasteari utzi eta musikari ekingo dio. Bere herriko Musika abertzalearen sortzailea da.

ZENBAIT OBRA

- Tounela-ko zisnea. Suite Modernoa.
- Finlandia. Poema Sinfonikoa.
- Vals tristea. Bere obra ezagunena.

HUNGARIAKO ABERTZALETASUNA

- Garrantzi handieneko bi konposatzaile honako hauek dira:
 - ✓ **BELA BARTOK. 1881 - 1945** Bere obra ezagunena “MIKROKOSMOS”.
 - ✓ **ZOLTAN KODALY. 1882 - 1967**. Hary Janos. Humorezko opera.



INPRESIONISMOA

- XIX. mendearen bukaera aldetik XX. hasiera aldera arte.
- SENTZAZIOA DA HELBURU.



Ezaugarri orokorrak	Musikaren ezaugarriak
<ul style="list-style-type: none">• Garrantzitsuena ez dira gauzak, horiek inguratzen dituen giroa baizik.• INPRESIONISMOAn kolorea funtsezkoa da.• “Impression le Soleil” izeneko MONETen koadrotik datorkio izen hori.	<ul style="list-style-type: none">• Armonia melodiaren gainetik dago.• Autoreek erabilitako formak eta egiturak baztertu egiten dituzte• Modu Maiorraren eta minorraren ordeztan, berez tonalitatez ez duten eskalak erabiliko dituzte.

- INPRESIONISMOAREN musikari handienak honako hauek dira:
 - DEBUSSY
 - RAVEL

Claude DEBUSSY. Paris 1862 – 1913

- Iraultzailea. INPRESIONISMOAren sortzaile izan zen.
- Akorde berriak eta tonalitate arraroak baina atseginekoak eskaini zizkion musikari.
- Gauzak dituzten hainbat nabardura bilatzen eta soinuaren bidez adierazten zekien poeta bat zen.
- Bere obrek izenburu liluragarriak dituzte DEBUSSYren nortasuna gorestekoa da, musikaren munduari bide berriak zabaldu baitzizkion, aurrera egiteko aukera handirik ez zuela zirudienean.

ZENBAIT OBRA

<ul style="list-style-type: none">• <i>Pelleas eta Melisande. Opera</i>• <i>Preludioa fauno baten siestari eskainia. Poema Sinfonikoa</i>• <i>Itsasoa</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Euriaren azpiko lorategiak</i>• <i>Urperatutako katedrala</i>• <i>Bergamasque suite-a. “Ilargiaren argia” suite horri dagokio.</i>
---	---



Maurice RAVEL. Frantzia 1875 – 1937



- Donibane Loitzunen, Ziburu izeneko herri txiki batean jaioa.
- Sentsibilitate handiko konposatzaile honek, DEBUSSY bezala misterioa bilatu nahian ibili beharrean, gordinik eta, beharbada, era klasikoan ikusten zuen errealitatea.
- Bere armonia argia eta zehatza da.
- RAVELen musika dantzatik sortua da.
- Orkestratzaile bikaina da, baita ere. Beste zenbait bertsioren artean, MOUSSORGSKYren “ Erakusketa bateko kuadroak” obratik orkestrara egokitutako bertsioren zoragarria egin zuen.
- Bere BOLERO famatua instrumentuen aberastasunaren eta barietatearen eredu da.

ZENBAIT OBRA


<ul style="list-style-type: none">• <i>Dafnis eta Cloe. Balleta</i>• <i>Nire ama antzarra. Suite Modernoa</i>• <i>La Valse. Poema koreografikoa</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Boleroa</i>• <i>2 Kontzertu Piano eta orkestrarako. (Bata, ezkerreko eskurako bakarrik. Bestea, jazz-eko temarekin.</i>
---	---

ESPAINIAKO MUSIKA

- ESPAINIAKO MUSIKA ESKOLA, aldi ilun eta pobre baten ondoren, Europako ERROMANTIZISMOAN berpiztuko da.

EZAUGARRIAK

- Andaluziako musika berezkoak dituen ezaugarriak, musika horrek eskaintzen dituen elementuak beste hainbat herritako musikak ez baitauzka.
- ERRITMO NABARMENAK ETA INDAR HANDIKOAK
- ARABIAKO ETA EKIALDEKO KUTSUA DUTE MELODIAK



Felipe PEDRELL. Catalunya 1841 – 1922

- MUSIKA ESPAINIARRA berak berpiztu zuen.
- Musikologo aparta, herriko berezko musika hornituko duen iturria bilatzen saiatzen da.

Pablo SARASATE. Iruñea 1844 – 1908

- Biolin jole aparta, MUSIKA ESPAINIARRA berpizteari ekingo dio, baita ere.
- PAGANINIren biolina hartzen du eredutzat.
- Bere obrak egiterakoan kanta herrikoiaz bailatzen da.
- Bere musikan antzeman daitezke:
 - Zehaztasuna
 - Sentsibilitatea
 - Trebetasun artistikoa



ZENBAIT OBRA

- *Zapateado*
- *Capricho vasco*
- *Romanza andaluza*
- *Jota navarra*

Isaac ALBENIZ. Camprodón (Girona) 1860 – 1909



- MUSIKA ESPAINIARRA gailurrera eraman zuen berak.
- Txikitandik piano kontzertu jole trebea.
- Urduria eta bohemioa. 12 urte zituela itsasoratu zen Ameriketarantz.
- PEDRELLen ikaslea izanik, konposizioak egitera bultzatu zuen.
- Parisen DEBUSSY ezagutu eta INPRESIONISMOAREN teknika bereganatu zuen.
- ALBENIZen musika lirikoa da, hegoaldeko kolorez apaindua.
- Musika espainiarraren erritmoak erabiltzen ditu beti.
- Bere obra garrantzitsuenak pianoan jotzeko eginak dira.

ZENBAIT OBRA

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>IBERIA, Suite Modernoa, musika espainiarrari zentzua emango diona.</i>• <i>Evocación</i>• <i>El Puerto</i>• <i>Corpus Christi en Sevilla</i>• <i>El Albaicín, etab.</i>• <i>Suites Españolas, 1 y 2</i>• <i>Granada</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Sevilla</i>• <i>Asturias</i>• <i>Pepita Jiménez. Opera</i>• <i>S. Antonio de la Florida. Opera</i>• <i>Navarra</i>• <i>Azulejos</i> |
|--|---|

Enrique GRANADOS. Lleida 1867 – 1916

- Izaeraz ALBENIZ ez bestelakoa da: barrukoiagoa, ameslaria, Mediterraneoeko grazia eta gardentasuna du.
- Bere karreran lortutako harrerarik handiena New York-en izan zen, GOYESCAS opera bertan estreinatu zuenean. Opera hau egiterakoan XVIII mendeko Madriliko zenbait toki agertzen diren GOYAren tapizak izan ziren bere inspirazio iturri.
- Ipar Ameriketatik bueltan, emaztea eta bera galdu egin ziren Canal de la Mancha-ra iristean zeramaten untziari eraso egin ziotenean.



ZENBAIT OBRA

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>Danzas Españolas</i>• <i>Allegro de Concierto</i>• <i>Tonadillas</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Goyescas. Opera</i>• <i>M. del Carmen. Opera</i>• <i>Danza Gitana</i> |
|---|--|

Manuel de FALLA. Cadiz 1876 – 1946



- FALLAekin, musika espainiarrak berezko nortasuna bereganatuko du eta horrela MUSIKAREN ABERTZALETASUNA gailurrera iritsiko da.
- Gizon umila eta apala zen eta bakardadea atsegin zuen.
- Ama izan zuen aurreneko irakasle. Gerora, ALBENIZ, DEBUSSY, DUKAS, etab. izan zituen irakasle.
- Madriletik eta Parisetik itzultzean, Granadara joan zen bizitzera, bertako “crímenes”ak eta misterioak liluratuta utzi baitzuten musikaria.
- 1939an, Argentinara joan eta bertan hil zen “La Atlántida” izeneko bere Oratorioa amaitu ez zuelarik. Obra hori bere ikasle izandako Ernesto HALFFTERek amaitu zuen ondoren.
- Musika ikertzen saiatu zen. Horregatik, bere musika berrikuntzaz beteago da.

ZENBAIT OBRA

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>La vida breve. Opera</i>• <i>El sombrero de tres picos. Balleta</i>• <i>El amor brujo. Balleta</i>• <i>Noches en los jardines de España. Pianoa eta orkestra.</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Retablo de Maese Pedro. Escenas sobre el Quijote.</i>• <i>4 Piezas Españolas, pianorako</i>• <i>Fantasia Bética. Pianoa</i>• <i>7 Canciones Españolas. Kantu eta pianoa.</i> |
|---|--|

Joaquín TURINA. Sevilla 1882 – 1949

- Bere musikak eguneroko gauza txikien gozamina erakusten digu.
- Bere konposizioak Andaluziako estilokoak dira erabat.
- Impresionismoaren nolabaiteko eragina antzematen zaio.

ZENBAIT OBRA

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">• <i>La procesión del Rocío</i>• <i>La oración del torero</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Danzas fantásticas</i>• <i>Sinfonía sevillana</i> |
|--|---|



Joaquín RODRIGO. Sagunto (Valencia). 1902

- Gaur egun, musika espainiarraren ordezkari bikainenetakoa.
- 3 urte zituela itsu geratu zen.
- Parisen ikasi zuen PAUL DUKASekin.
- Bidai asko egin ditu eta bere musika mundu guztian zehar ezagutzen dute.

ZENBAIT OBRA

- *Concierto de Aranjuez, gitarra eta orkestrarako. (Ezagunena)*
- *Concierto heróico, pianorako.*
- *Ausencias de Dulcinea*
- *Fantasia para un gentil hombre, gitarra eta orkestrarako.*



Juan Crisóstomo ARRIAGA. Bilbo 1806 – Paris 1826

- “MOZART ESPAINIARRA” deitu izan ohi diote, bere estiloa argia eta zehatza delako. Gainera, bere konposizioak espresibitate handikoak dira, baita ere.
- Aurreneko eskolak aitak eman zizkion, eta geroago Parisera joan zen bere teknika lantzeko. Bertan, Pariseko Kontserbatorioko laguntzaile izendatu zuten. Baina gaixo jarri eta 20 urte zituela hil zen.

ZENBAIT OBRA

- *Los esclavos felices (Opera horretatik Obertura besterik ez da geratzen)*
- *Sinfonía en Re m.*
- *Kuartetoak*
- *Misa a 4 voces.*



José M. USANDIZAGA. Donostia 1887 – 1915

- Oso gaztea zela Parisera joan zen eta bertan Vicente D'INDY izan zen bere irakasle, SCHOLA CANTORUM ospetsuan.
- USANDIZAGAK opera euskalduna sortu nahi izan zuen. Bere lehenengo saioa “MENDI-MENDIAN” obra izan zen, euskal ohituren erakusgarri ederra.

BESTE ZENBAIT OBRA

- *Las golondrinas*
- *La Llama*

Jesús GURIDI. Gasteiz 1886 – Madril 1961

- Bilbo eta Pariseko Kontserbatorioetan ikasi zuen.
- Parisera joan eta SCHOLA CANTORUMean aritu zen.
- Bruselasetan eta Kolonian organoa landu zuen eta konposizio ikasketak bukatu zituen.
- Bilbora itzultzean, irakaskuntzan eta talde musikalak zuzentzen aritu zen.
- Madrilgo Kontserbatorioko organo irakasle eta Zuzendari izan zen.
- Pedrell eta Albenizen ildotik, tema herrikoiak izan ziren bere inspirazio iturri.
- Bere euskal kantak aparteko trebetasunez daude harmonizatuta.

ZENBAIT OBRA

• <i>Mirentxu</i>	• <i>10 Melodías vascas</i>
• <i>Dramas líricos</i>	• <i>Sinfonía Pirenaica.</i>
• <i>Amaya</i>	• <i>Fantasia para piano y orquesta</i>
• <i>El Caserío, zarzuela</i>	• <i>(Watt Disney-ren omenez)</i>



MUSIKA GARAIKIDEA

ESPRESIONISMOA

- Frantzian, 1. Gerra Mundialaren ondoren, “6en TALDEA” eratu zen, MUSIKAN ESPRESIONISMOAren sortzaile.

EZAUGARRIAK

- ESPRESIONISMOA zintzotasunerako, naturaltasunerako eta zuzeneko espresiorako itzuleran oinarritzen da.
- Ohizko egitura musikalak baztertzen dituzte.
- Musika ez da programa batetara mugatu behar. Bere helburua entzulearengana zuzenean iristea izan behar du.
- 6en TALDEA osatzen dute:
 - ✓ POULENC. Francis. 1899 – 1963
 - ✓ MILHAUD. Darius. 1892 – 1974
 - ✓ TAILLEFERRE. Germaine. 1892 – 1983
 - ✓ AURIC. Georges. 1899 – 1983
 - ✓ DUREY. Louis. 1888 – 1979
 - ✓ HONEGGER. Arthur. 1892 – 1955
 - Bere obra “Pacific 231” oso ezaguna da.



Igor STRAWINSKY. 1882 – 1971

- XX mendeko musikaririk aipagarrienetakoa bera da.
- Errusian jaioa, Paris, London eta Estatu Batuetan bizi eta bertan Ipar Ameriketako hiritar egin zen.
- Bolara batetan, “BOSTEKOEN TALDEA”ren jarraitzaile izan zen, RIMSKY-KORSAKOVen ikasle izanik.
- STRAWINSKY iraultzaile bat zen.
- Antzinako erritmo basatiak bereganatzen ditu.
- Orkestraren eginkizunak aldatu egiten ditu, harizko instrumentuei baino, haize eta perkusiozkoei garrantzi handiagoa emanez.
- Bere musika melodiaduna, bortitza eta oso herrikoia da.
- Parisen hil zen eta, berak eskatuta, Venezian hilobiratu zuten.




ZENBAIT OBRA

<ul style="list-style-type: none">• <i>Suzko txoria. Balleta</i>• <i>Petruschka. Balleta</i>• <i>Soldaduen historia. Suite Moderna</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Udaberriaren konsagrazioa</i>• <i>Salmuen Sinfonia, koru eta orkestrarako</i>
--	---

GAUR EGUNEKO JOERAK

- Gure garaiko musikak gure pentsamoldea eta bizimodua isladatu eta adierazten digu.



DODEKAFONISMOA EDO ATONALISMOA

- Eskalak dituen 12 soinuen eginkizunen berdintasunean, “serie” batean antolatutakoetan, oinarritzen den sistema da.
- Ordezkarri nagusienak:
- Arnold SCHONBERG
- Alban BERG

MUSIKA KONKRETOA ETA ELEKTRONIKOA

- Soinuak era artifizialean sortzen dituzte, laborategi batetatik aterako balituzte bezala, horiek aldatu egiten dituzte banda magnetikoetatik behin eta berriz pasaz.
- **MUSIKA KONKRETOA**k bizitzako soinuak eta zaratak jasotzen ditu: *motoreak, hegazkinak, champagne botela baten kortxoa, etab.*
- **MUSIKA ELEKTRONIKOAK**, berak fabrikatzen ditu soinuak, generadore elektronikoen bitartez. **MUSIKA KONKRETOA** Frantzia sortu zen eta **MUSIKA ELEKTRONIKOA** Alemanian.
- Biak teknika berri bat sortu dute: **MUSIKA ELEKTRO-AKUSTIKOA**.

MUSIKA ALEATORIOA

- Interpretariari inprobisatzeko tarteak eskaintzen dizkion musika da.



BESTE ZENBAIT GARRANTZIZKO MUSIKARI

- ✓ **ALBINONI**. Tomaso. 1671 - 1750. Konposatzaile veneziarra eta VIVALDIren laguna. Concerto grosso-aren sortzailetako bat da.
- ✓ **BERG**. Alban. 1885 - 1935. Konposatzaile austriarra eta SCHONBERGEn ikaslea. Serialismoaren jarraitzaile. Bere garaiko konposatzaile onenetako bat da.
- ✓ **BERNAOLA**. Carmelo. 1929. Konposatzaile euskalduna. Musika serialean eta aleatorioan ari da lanean.
- ✓ **BIZET**. George. 1838 - 1875. Frantziako konposatzailea, **CARMEN** izeneko bere operatetik ospetsua.
- ✓ **BOCHERINI**. Luigi. 1743 - 1805. Konposatzaile italiarra, Madrilgo Gortean lan egin zuen. Bere “minuetto”a ezaguna da.
- ✓ **BRITTEN**. Benjamín. 1913 - 1976. Gure garaiko konposatzaile ingeles interesgarrienetako bat da.
- ✓ **BRUCKNER**. Anton. 1824-1896. Konposatzaile austriarra. Bere musika sinfonikoak Wagner-en obraren eragin handia du.
- ✓ **CORELLI**. Arcángelo. 1653 - 1713. VIVALDI eta ALBINONIrekin batera, biolineko eskola modernoaren eta concerto grosso-aren sortzailetako bat da.
- ✓ **DUKAS**. Paul. 1865 - 1935. Konposatzaile eta kritikari frantsesa. Bere obra ezagunena “El aprendiz de brujo” Poema Sinfonikoa da.
- ✓ **FAURE**. Gabriel. 1845 - 1924. Konposatzaile frantsesa eta RAVELen irakasle.
- ✓ **FRANCK**. César. 1822 - 1890. Belgikako konposatzaile eta organo jolea.
- ✓ **HALFFTER**. Ernesto. 1905ean Madrilen jaioa, FALLAren ikasle nabarmenetakoa da eta “La Atlántida” bere obra bukatu zuena.
- ✓ **HALFFTER**. Cristobal. Konposatzaile espainiarra, 1930ean jaioa. Bere obran serialismoaren joera berria agertzen da.
- ✓ **KETELBEY**. Albert. 1875 - 1959. Konposatzaile ingelesa, bere obrak estilo deskriptiboa du.
- ✓ **LULLY**. Jean Baptiste. 1632 - 1687. Jaiotzez italiarra, 30 urtez Frantziako Gortean musikari kuttunena izan zen.
- ✓ **MAHLER**. Gustav. 1860 - 1911. Austriako konposatzaile eta orkestra zuzendaria. 9 Sinfonia dauzka, guztiak luzeak oso.
- ✓ **MONTEVERDI**. Claudio. 1567 - 1643. Musikari italiarra, operaren sortzailetako bat da.
- ✓ **ORFF**. Carl. 1895 - 1982. Alemaniako konposatzaile eta pedagogoa. Bere obra ezagunena “Carmina Burana” da.
- ✓ **PABLO**. Luis, de. 1930. Konposatzaile euskalduna, gaur egun musikak dituen teknika berriak lantzen ditu.
- ✓ **PACHELBEL**. Johann. 1653 - 1706. Alemaniako organo jole famatua. BACHek asko gozesten zuen.
- ✓ **RACHMANINOV**. Sergei. 1873 - 1943. Konposatzaile eta piano jole errusiarra.
- ✓ **RAMEAU**. J. Philipps. 1683 - 1764. Frantziako operaren ordezkarri eta “Tratado de armonía”ren autore.
- ✓ **RESPIGHI**. Ottorino. 1879 -1936. Italiarra, RIMSKY-KORSAKOVen ikasle izan zen. Orkestratzaile bezala nabarmentzen da.
- ✓ **SAINT-SAENS**. Camille. 1835 - 1921. Konposatzaile frantsesa. Bere obra ezagunenak hauek dira: “Dantza makabroa” eta “Animalien ihauteria”.
- ✓ **SATIE**. Erik. 1866 - 1925. Frantzia. “Seien Taldea” eratzean eragina izan zuen.
- ✓ **SCARLATTI**. Musikari italiarren familia. Domenico 1685 - 1757. Klabezinerako musika konposatzailea.
- ✓ **SOLER**. Antonio. 1729 - 1783. Katalunyakon konposatzailea eta SCARLATTIren jarraitzailea. Espainian, XVIII mendearan ordezkarri aipagarrienetakoa bera da.
- ✓ **SCHONBERG**. Arnold. 1874 - 1951. Konposatzaile austriarra eta musika dodekafonikoaren sortzailetako bat.
- ✓ **STRAUSS**. Richard. 1864 - 1949. Alemaniakoa. Bere poema sinfoniko eta operengatik ezaguna.
- ✓ **TELEMANN**. George Philipp. 1681 - 1767. Alemania. Instrumentu solistentzako Kontzertuak aurrera egiten lagundu zuen musikaria.
- ✓ **VERDI**. Giuseppe. 1813 - 1901. Italiako opera egile famatua. Bere opera ezagunen artean: “Aida” eta “Nabucco”.
- ✓ **VIVES**. Amadeo. 1871 - 1932. Konposatzaile katalana, zartzuelen autore ospetsua: “Bohemios”, “Doña Francisquita”.